

Neandertalen inguruko azken aurkikuntzak eta izaki bizidunen ikusmenaren eboluzioa izango dira Darwinen Eguneko gai nagusiak

Euskal Herriko Kultura Zientifikoko Katedrak, Círculo Escéptico eta Bidebarrieta Liburutegiak, El Correo egunkariaren laguntzarekin, bi hitzaldi antolatatu dituzte Charles Darwin geologo eta biologo ingelesaren jaiotzaren 215. urteurrena gogoratzeko.

Bilbo, 2024ko urtarrilak 11. Azken 150 urteetan aztergai izan diren neandertalen inguruan zerbait berria esan daiteke? Badakigu ikusmenak zer nolako eragina izan duen izaki bizidunen eboluzioan? Galdera horiek izango dira gai nagusiak **Darwinen Egunaren 18. edizioan.**

Aurten ere **otsailaren 12an** izango da jardunaldia Bilboko Bidebarrieta Liburutegian, **Charles Darwin geologo eta biologo ingelesaren jaiotzaren 215. urteurrena betetzen den egun berean.**

Bertan, 40 minutuko hitzaldi bana eskainiko dute [Conchi Lillo Delgado](#) Neurozientzietan doktorea, Salamancako Unibertsitateko Biologia Fakultateko irakaslea eta zientzia dibulgatzaileak eta [Asier Gomez Olivencia](#) Giza Eboluzioan espezializatutako doktorea, paleontologoa eta UPV/EHUko ikertzaileak.

Lillo Delgado "Eboluzioari begirada bat" ("Una mirada a la evolución") hitzaldiarekin dator Darwinen Egunaren edizio berri honetara. Bertan, ornodunen eta ornogabeen bitxikerietatik eta ezaugarrietatik abiatuta, izaki bizidunen ikus-sistemak nola funtzionatzen duen eta bizirauteko nola garatu den azalduko du.

Gómez Olivenciaak, bere aldetik, neandertalen inguruan egin diren azken aurkikuntzak azalduko dizkie bertaratzen direnei. Teknologia berrien erabilerari eta aztarnategi klasikoen berrikuspenari esker lortutako datu berrietan sakonduko

du "Zer moduz, neandertal? Ezagun zahar baten inguruko datu berriak" ("¿Qué tal, neandertal? Nuevos datos sobre un viejo conocido") hitzaldian.

Hitzaldiak 18:30ean hasiko dira eta sarrera librea izango da edukiera bete arte. Bidebarrieta Liburutegiko [Kulturagunea kanalean](#) ere jarraitu ahal izango da jardunaldia streaming bidez.

Darwin Eguna 2007tik Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak, Círculo Escépticok eta Bidebarrieta Liburutegiak antolatutako ekimena da. Zientzia zaleentzat ezinbestekoa bilakatu den hitzordu hau El Correo egunkariaren laguntzarekin antolatzen da.

Hizlariak

Conchi Lillo Delgado biologoa, Neurozientzietan doktorea eta Salamancako Unibertsitateko Biologia Fakultateko irakaslea da. Gaztela eta Leongo Neurozientzietako Institutuan ikusmenaren neurobiologia du ikergai. Dibulgazio zientifikoari dagokionez, [¡Abre los ojos!](#) liburuaren argitalpena nabarmendu behar da, baita dibulgazio-plataforma desberdinekin egindako lankidetzaren ere, hala nola [Naukas](#), [The Conversation](#) edota Salamancako Ser Irratiko Hoy por Hoy saioan.

Asier Gómez Olivencia Giza Eboluzioan espezializatutako doktorea eta paleontologoa da. Ikerketa eta argitalpen esperientzia zabala du, 90 artikulua zientifiko baino gehiagorekin. Atapuercako Ikerketa Taldean egin zuen tesia, Cambridgeko Unibertsitatean eta Parisko Musée de l'Homme-n lan egin du eta 2014an Euskal Herriko Unibertsitatean sartu zen, lehenik Ikerbasque ikertzaile gisa eta gero Ramón y Cajal ikertzaile bezala. Atapuercan indusketak egiteaz gain, Euskadiko hainbat aztarnategitako lanak zuzentzen ditu.

Darwinen Eguna

Hizlariak:

Conchi Lillo Delgado, Neurozientzietan doktorea, Salamancako Unibertsitateko Biologia Fakultatean irakaslea eta zientzia dibulgatzailea.

Asier Gómez Olivencia, Giza Eboluzioan espezializatutako doktorea, paleontologoa eta UPV/EHUko ikertzailea.

Eguna: Otsailak 12, astelehena.

Lekua: Bilboko Bidebarrieta Liburutegia (Bidebarrieta kalea, 4).

Ordua: 18:30.

Los últimos hallazgos sobre los neandertales y la evolución en el sistema visual de los seres vivos centrarán una nueva edición del Día de Darwin

La Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco, el Círculo Escéptico y la Biblioteca Bidebarrieta, en colaboración con El Correo, conmemorarán el 215 aniversario del nacimiento del geólogo y biólogo inglés con dos sendas charlas.

En Bilbao, a 11 de enero de 2024. Tras 150 años siendo objeto de estudio, ¿se puede decir algo nuevo sobre los neandertales? ¿Sabemos cómo ha condicionado la visión en la evolución de los seres vivos? Esas son algunas de las preguntas que se van a plantear en la decimoctava edición del Día de Darwin.

Esta nueva edición tendrá lugar el 12 de febrero en la Biblioteca Bidebarrieta de Bilbao, justo cuando se cumplen 215 años del nacimiento del geólogo y biólogo inglés Charles Darwin y contará con la participación de la doctora en Neurociencias y profesora de la Facultad de Biología de Salamanca [Conchi Lillo Delgado](#) y el doctor, paleontólogo e investigador de la UPV/EHU, [Asier Gómez Olivencia](#) que ofrecerán dos charlas de 40 minutos cada una.

Lillo Delgado llega a esta nueva edición con la charla “Una mirada a la evolución” en la que, partiendo desde las curiosidades y características de los vertebrados e invertebrados, explicará cómo funciona el sistema visual de los seres vivos que, captando las formas, colores y profundidad del mundo que les rodean han desarrollado ventajas evolutivas para sobrevivir y defenderse.

Gómez Olivencia, por su parte, acercará a los y las asistentes los últimos descubrimientos que se han hecho en torno a los neandertales. Lo hará con la charla titulada “¿Qué tal, neandertal? Nuevos datos sobre un viejo conocido” en la que

profundizará en los nuevos hallazgos logrados gracias a la utilización de nuevas tecnologías y la revisión de yacimientos clásicos.

Las charlas comenzarán a las 18:30 y la entrada será libre hasta completar el aforo. También se podrá seguir por streaming en el [canal Kulturgunea](#) de la Biblioteca Bidebarrieta.

El Día de Darwin es una iniciativa organizada desde 2007 por la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco, el Círculo Escéptico y la Biblioteca Bidebarrieta de Bilbao. Una cita que se ha convertido en ineludible para los y las aficionadas a la ciencia y que cuenta con la ayuda del diario El Correo.

Ponentes

Conchi Lillo Delgado es bióloga y doctora en Neurociencias y profesora en la Facultad de Biología de la Universidad de Salamanca. Su área de investigación es el de la neurobiología de la visión en el Instituto de Neurociencias de Castilla y León. En su faceta de divulgadora científica hay que destacar la publicación del libro [¡Abre los ojos!](#) y la colaboración con distintas plataformas de divulgación como [Naukas](#), [The Conversation](#) o una sección quincenal en el programa Hoy por Hoy en Ser Salamanca.

Asier Gómez Olivencia es doctor y paleontólogo especializado en Evolución Humana. Cuenta con una dilatada experiencia de investigación y publicación con más de 90 artículos científicos. Realizó su tesis en el Equipo de Investigación de Atapuerca, ha trabajado en la Universidad de Cambridge y en el Musée de l'Homme de París y en 2014 se incorporó a la Universidad del País Vasco, primero como investigador Ikerbasque y después como investigador Ramón y Cajal. Además de excavar en Atapuerca, dirige la excavación en varios yacimientos de Euskadi.

Día de Darwin

Ponentes:

Conchi Lillo Delgado, doctora en Neurociencias, profesora de la Facultad de Biología de Salamanca y divulgadora científica.

Asier Gómez Olivencia, doctor especializado en Evolución Humana, paleontólogo e investigador de la UPV/EHU.

Día: 12 de febrero, lunes.

Lugar: Biblioteca Bidebarrieta de Bilbao (Calle Bidebarrieta, 4).

Hora: 18:30